



1. ATALA



ULERMENA

1. Nolakoa zen Keawe? Zer zekien egiten?

2. Norantz abiatu zen? Nolakoa zen hiri hura?

3. Nolakoa zen Keawek ikusi zuen etxea?

4. Eta leiho atzean zegoen gizona?

5. Zenbat diru zeukan Keawek sakelari?

6. Zer saldu zion? _____

7. Nolakoa zen botila? _____

8. Apurtu ahal da botila?

9. Zer dago botilaren barruan?

10. Zer ematen du botilako deabruak?

11. Nora joango da botilaren jabea hil baino lehen ez badu saltzen?

12. Nola saldu behar da beti botila, garestiago ala merkeago?



GRAMATIKA

Atal honetan adjetibo asko agertzen dira. Zerrendatu eta jakinez gero, sinonimo bat eman.



MINTZAMENA

1. Imaginatu zu Keawe zarela. Deabruko botila erosiko zenuke?
2. Beldur izango zinateke holako egoera batean?
3. Magian sinisten duzu?
4. Ezagutzen zenuen Cook kapitaniaren istorioa?
5. Azkenean hil eta jan egin zuten. Gaur egun holako gauzak gertatzen dira munduan?

2. ATALA



ULERMENA

1. Keawe zalantzaz beteta zegoen, Zenbat proba egin zuen bere zalantzak argitzeko?
Zeintzuk izan ziren?

2. Nori kontatu zion bere sekretua Keawek?

3. Nolako etxea nahi zuen Keawek?



Lanketa didaktikoak

4. Non eraikiko du bere etxea?

5. Nor hil zitzaion Keaweri?

6. Zer utzi zion bere senideak?

7. Nolakoa zen arkitektoak erakutsi zion planoak?



GRAMATIKA

“Zalantzaz beteta zegoen“ (59.orrialdean)

“Eguerdia zen, baina kalean ez zebilen inor” (59.orrialdean)

“Keawek lagun min bat zeukan itsasontzian: Lopaka” (61.orrialdean)

| | | |
|--------------|--------------|---------------------|
| EGON | ORAIN | LEHENHALDIAN |
| NI | NAGO | NENGOEN |
| HURA | DAGO | ZEGOEN |
| GU | GAUDE | GEUNDEN |
| ZU | ZAUDE | ZEUNDEN |
| ZUEK | ZAUDETE | ZEUNDETEN |
| HAIK | DAUDE | ZEUDEN |
| IBILI | ORAIN | LEHENHALDIAN |
| NI | NABIL | NENBILEN |
| HURA | DABIL | ZEBILEN |
| GU | GABILTZA | GENBILTZAN |
| ZU | ZABILTZA | ZENBILTZAN |
| ZUEK | ZABILTZATE | ZENBILTZATEN |
| HAIK | DABILTZA | ZEBILTZAN |
| EDUKI | ORAIN | LEHENHALDIAN |
| NI | NEUKAN | NEUZKAN |
| HURA | ZEUKAN | ZEUZKAN |
| GU | GENEUKAN | GENEUZKAN |
| ZU | ZENEUKAN | ZENEUZKAN |
| ZUEK | ZENEUKATEN | ZENEUZKATEN |
| HAIK | ZEUKATEN | ZEUZKATEN |



Bete itzazu hutsuneak aditz trikoekin bai orainaldian bai lehenaldian:

1. Armairuan ez _____ platerik.
2. Jaialdian jende asko _____ .
3. Gu oso aspertuta_ _____ afarian.
4. 12 urterekin zuk ba _____ erlojurik?
5. Haiek lehen betaurrekoak _____ .
6. Mutilak gaztetan praka bakeroak _____ .
7. Hirian zehar oso gustura _____ ama ikusi genuenean.
8. Ez _____ oso ondo, tripako mina dut eta.
9. Euria ari zuenean zu ez _____ mendian.

Adibidea ikusi eta gero egin esaldiak

1. Jon atzo oso urduri zegoen.
 - a. eta haiek?
 - b. eta ni?
 - c. eta zu?
2. Zu herrenka zenbiltzan.
 - a. eta zuek?
 - b. eta gu?
 - c. eta Amaia?
3. Nik txikitan bizikleta neukan.
 - a. eta haiek?
 - b. eta zuek?
 - c. eta zuk?



MINTZAMENA

10. Baduzu tatuajerik?
11. Non? Zer da? Nolakoa da?
12. Gustatzen zaizkizu? Baduzu egiteko asmorik? Non eta zer?
13. Moda da?
14. Baduzu piercing-ik? Non? Nolakoa da?



3. ATALA



ULERMENA

1. Arkitektoak etxea amaitu arte nora joan ziren Keawe eta Lopaka?

2. Non eta nolakoa zen Keaweren etxea?

3. Lopakak zer ikusi nahi du, Keaweri botila erosi baino lehen?

4. Zer eskatu zion Keawek botilako deabruari?

5. Erosi zion Lopakak botila?

6. Zer egin zuen Keawek bere lagunaren salbazioa eskatzeko?



GRAMATIKA

“Abisua jaso bezain laster, bi lagunak Hawaiira itzuli ziren,…” (67.orrialdean)

“...nik ziur-ziur egon nahi dut, botila erosi baino lehen”

Asko dira denborazko perpausak osatzeko erabiltzen diren egiturak. Guk errezenak ikusiko ditugu:

1. Aurrekotasuna

Dendan gona bat erosi baino lehen, prezioa begiratzen dut.

Bazkaltzen hasi baino lehen, eskuak garbitzen ditut.

2. Ondorengotasuna

Bazkaldu eta gero hortzak garbitzen ditut.

Esnatu bezain laster, komunera joaten naiz.

3. Aldiberekotasuna

Bazkaldu bitartean, telebista ikusten dut.



Bete itzazu hutsuneak denborazko formak erabiliz:

1. Istripua ikusi _____ deitu zuen 112ra.
2. Esnatu _____ txiza egiten dut beti.
3. Arropa erosi _____ janzen dut.
4. Euskaltegira etorri _____ lagunekin geratzen naiz.
5. Gaur lan egin _____ pote bat hartuko dut.
6. Hitzaldia eman _____ ondo prestatzea gustatzen zait.
7. Zu ikusi _____ zure urtebetetzeaz gogoratu naiz.
8. Kalera irten _____ ispilutik pasatzen naiz askotan.
9. Gimnasia joan _____ etxerako lanak egin ditut.



MINTZAMENA

Surfaren sorrera irakurri eta gero

1. Kirolak egiten duzu? noiz? Bakarrik edo taldeka?
2. Zein? Zergatik eta zertarako egiten duzu?
3. Surfa gustatzen zaizu? Eskia?
4. Kirol egitea garestia da?



4. ATALA



ULERMENA

1. Nola bizi zen Keawe bere etxean?

2. Zertara joan zen Kailua herrira?

3. Zer ikusi zuen etxerako bidean? Nor zen? Nolakoa zen?

4. Zer nahi du Keawek? Zer eskatu dio Kokuari?

5. Noraino lagundu zion Keawek Kokuari?

6. Kokuaren aitak Keawe ezagutzen zuen?

7. Onartu zuen Kokuak Keaweren proposizioa?

8. Nola bueltatu zen Keawe etxera?

9. Zer gertatu zitzaion arropa erantzi zuenean?



GRAMATIKA

“Balkoian alde batetik bestera paseatzen eman zuen gau osoa...” (76.orrialdean)

PASATU aditza: Gaztelaniaren eragina dela eta gehiegi erabiltzen dugu aditz hau. Beste batzuk ikasiko ditugu.

- Gau osoa pasatu dut ikasten.
- Gau osoa EMAN dut ikasten.
- Zer pasatzen zaizu?
- Zer GERTATZEN zaizu?
- Bi urte pasatu nituen Alemanian.
- Bi urte IGARO nituen Alemanian.
- Zure etxetik pasatuko naiz. ONDO

Aldatu pasatu aditza beharrezkoa bada:

1. Zer pasatu da gaur goizean euskaltegian? _____
2. Non pasatuko dituzu oporrak? _____
3. Zenbat denbora pasatu dugu elkarrekin? _____
4. Gero zure etxetik pasatuko naiz. _____
5. Batzuetan ez dakigu zer pasatzen zaion gure gizarteari. _____
6. Atzo gau osoa pasatu nuen telebistaren aurrean _____



MINTZAMENA

1. Keawe Kokuarekin maitemindu zen. Lehen begiradan maitemintzea posible ikusten duzu?
2. Horrelakorik gertatu zaizu?
3. Ezkonduta zaude? Baduzu ezkontzeko asmorik?
4. Zer dago ezkontza baten atzetik, zure ustez? negozioa, maitasuna, tradizioa?
5. Nondik ezkonduko zinateke, elizatik ala zibiletik?



5. ATALA



ULERMENA

1. Zer gertatu zitzaion Keaweri, bat -batean kantatzeari uzteko?
 - a. Eztarriko mina zeukan
 - b. Legena zeukan
 - c. Botilako deabrua bere ohe gainean zegoen
2. Zer egitea erabaki zuen?
 - a. Medikuarenera joatea
 - b. Kokuari dena kontatzea
 - c. Botilako deabrua berreskuratzea
3. Hall itsasontzian, zertan ibili zen?
 - a. Haoleekin kartetan aritu zen
 - b. Tabernan edaten ibili zen
 - c. Bakarrik egon nahi zuen
4. Noiz ailegatu zen itsasontzia Honoluluko portura?
 - a. Iluntzean
 - b. Goiz-goizean
 - c. Eguerdian
5. Bazuen Lopakak botila? _____
6. Nork erosi zion Lopakari botila?
 - a. Gizon zahar batek
 - b. Abokatu batek
 - c. Kokuak
7. Azkenean nori erosi zion botila?
 - a. Neska gazte bati
 - b. Mutil gazte bati
 - c. Inori ere ez
8. Zenbatean erosi zion?
 - a. Bi zentaboan
 - b. Dohainik
 - c. Zentabo batean
9. Zer eskatu zion Keawek botilari eskuetan eduki zuenean?
 - a. Etxe handi bat
 - b. Kokuaren ondoan egoteko
 - c. Bere gaisotasuna sendatzeko



GRAMATIKA

Atal honetan **BEHAR IZAN** aditzaren aspektua landuko dugu.

“..... deabruaren laguntza behar dut sendatzeko...” (79.orrialdean)

“ Keawek Lopakarekin hitz egin behar zuen” (80.orrialdean)

BEHAR IZAN aspektua

- Gaur goizean lan egin behar izan dut
- Atzo lan egin behar izan nuen.
- Normalean lan egin behar izaten dut
- Lehen normalean lan egin behar izaten nuen.
- Orain lan egin behar dut.
- Atzo zurekin nengoenean lan egin behar nuen.
- Bihar lan egin behar izango dut

Bete itzazu hutsuneak behar izan aditza erabiliz:

1. Orain dela ordubete lanean egon _____ (ni)
2. Atzo kristoren beroa egin zuen eta leiho guztiak zabaldu _____. (Haiek)
3. Txikitan ia egunero etxerako lanak egin _____. (hura)
4. Etzi zuek hau guztia garbitu _____ .
5. Orain azterketa egin _____. (zuek)
6. Astean bitan medikuarenera joan _____. (zu)
7. Hemendik bi astera oso proba garrantzitsua egin _____. (gu)
8. Gaur goizean ogia eta txorizoa erosi _____. (ni)
9. Datorren urtean beste herri batera joan _____ bizitzera. (zu)



MINTZAMENA

1. Jatea gustatzen zaizu?
2. Sukaldari ona zara?
3. Zer ez zenuke inoiz jango?
4. Zein da gehien gustatzen zaizun janaria?
5. Goxozalea edo gazizalea?
6. Atzerrira joan zarenean bertako jakiak probatu dituzu? Ausarta zara?



6. ATALA



ULERMENA

1. Keawe Kokuarekin ezkondu ondoren , nora joan ziren bizitzera?
 - a. Honolulura
 - b. Beste herrialde batzuk ezagutzera
 - c. Etxe Handira
2. Keawe guztiz zoriontsua zen? _____
3. Nola ibiltzen ziren?
 - a. Kokua triste eta Keawe kantari
 - b. Keawe triste eta Kokua kantari
 - c. Biak oso pozik
4. Zergatik hasi zen Kokua ere negarrez izkutuan?
 - a. Haurdun zegoelako
 - b. Kokuak pentsatzen zuelako Keawek ez zuela maite
 - c. Botilako deabrua nahi zuelako
5. Keawek egia kontatzea erabaki zuen, zer kontatu zion?
 - a. Benetako istorioa
 - b. Gezurra
6. Non dago txanponik txikiena?
 - a. Indian
 - b. Frantzian
 - c. Ingalaterran
7. Hau jakin eta gero norantz abiatu ziren?
 - a. Tahitirantz
 - b. Frantziarantz
 - c. Honolulurantz
8. Nolako etxea alokatu zuten? Zergatik? _____
9. Jendeak ondo hartu zituen? _____
10. Botila saltzea ez zen hain erraza, zer egiten zuten elkarrekin?
 - a. Otoitz eta negar
 - b. Kartetan aritu
 - c. Negar egin



GRAMATIKA

-T(Z)EA NOMINALIZAZIOA

“ ezinezkoa da botila inori saltzea” (89.orrialdean)

“ ...bidaia bat egitea pentsatu dugu, ..” (90.orrialdean)

“...alokatzea erabaki zuten. “ (91. orrialdean)

“.. saltzea ez zen batere lan erraza”

- Zer ez da ona gure birikietarako? _____

- Zer da beharrezkoa pozik bizitzeko? _____

- Zer egitea pentsatu duzu hurrengo oporretan? _____

- Zer erabakiko duzu liburu hau amaitu eta gero? _____

- Ezinezkoa da _____

- Ezinbestekoa da _____

- Kaltegarria da _____
- Nire herrian debekatuta dago _____



MINTZAMENA

Mahahiki jaia

1. Nolakoak dira zure herriko jaiak?
2. Zer egiten da: kirolak, kontzertuak....?
3. Noiztik noiz arte izaten dira?
4. Zer da gehien gustatzen zaizuna?
5. Zein jaitara joaten zara?



7. ATALA



ULERMENA

1. Gau batean Kokua esnatu zen eta Keawe ez zegoen bere ondoan, Lopakarekin zegoen tabernan
 EGIA GEZURRA
2. Kokua kalera irten zen botila besapean, eta kaletik luzaroan ibili ondoren, agure bat ikusi zuen zuhaitz baten azpian.
 EGIA GEZURRA
3. Agureari izarren azpian oso gustatzen zitzaion lo egitea.
 EGIA GEZURRA
4. Kokuak proposatu zion tratua onartu zuen.
 EGIA GEZURRA
5. Agureak botilarekin geratu nahi zuen.
 EGIA GEZURRA
6. Keawe ez zen ezertaz enteratu
 EGIA GEZURRA
7. Goizean Keawe poz-pozik esnatu zen eta ez zen Kokuaren poztasunaz konturatu.
 EGIA GEZURRA
8. Keawe jan eta edaten hasi zen bere askatasuna ospatzeko, eta agureaz barre egiten hasi zen.
 EGIA GEZURRA



GRAMATIKA

ZEHAR ESTILOA:

-eLA, jatorrizko mezuko baiezko edo ezezko adierazpenen berri emateko.

-“Azterketa ondo egin dut.”

- ZER?

Azterketa ondo egin duela esan du.

-eN, jatorrizko mezuko galderen berri emateko.

-“Zer ordu da?”

-ZER?

Zer ordu den galdetu du.

-TZEKO, jatorrizko mezuko aginte perpausen berri emateko

-“Etorri hona”

-ZER?

Hona etortzeko esan du

Zehar estiloan jar ezazu: (96. orrialdean)

- Gabon jauna _____

_____ erregutu egin zion Kokuak.



MINTZAMENA

1. Fededuna zara?
2. Euskal Herriko mitologia ezagutzen duzu?
3. Zein pertsonaia ezagutzen duzu?
4. Zer dakizu beste herrietako mitologiari buruz?
5. Zer da mitologia?



8. ATALA



ULERMENA

- Keawek guztiz haserre jarraitu zuen emaztearekin, bere ustez gehiegi kezkatzen zen agurearen zoritxarraz eta berari ez zion batere kasurik egiten.
 EGIA GEZURRA
- Beste askotan bezala, egun hartan Keawe.....
 - parrandan ibili zen lagun batzuekin
 - lanera goiz goizetik joan zen
 - Kokuarekin geratu zen
- Nor zen kontramaisua? Nolakoa zen? _____
- Keawe etxera joan zenean diru bila, zertan ari zen Kokuak?
 - Etxea garbitzen ari zen
 - Negarrez ari zen
 - Deabruarekin hitz egiten ari zen.
- Keawe konturatu zen Kokuak botila erosi ziola agure zaharrari.
 EGIA GEZURRA
- Zertarako erosi zuen botila Kokuak? _____
- Etxera zertara joan zela esan zion Keawek? _____
- Nori proposatu zion Keawek botilarena?
 - Lopakari berriro
 - Agureari, total oso zaharra zen
 - Kontramaisuari
- Keawe kontramaisuarengana joan zenean berari botila berriro erostera, zer esan zion honek? _____

- Nola bizi izan ziren Keawe eta Kokuak haien Etxe handian? _____



GRAMATIKA

“... une hartan ez zihoan lagunekin alkohola edatera, botila saltzera baizik”
(106.orrlaldean)

BAIZIK: Aurkaritza mota honek, lehenengo juntagaian ezeztatzen den galdegaia bigarrenetan baieztatzen du.

Lehen juntagaia ezezkoan doa beti.

- Ez zait gorria gustatzen, berdea baizik
- Ez naiz Arantza, Elena baizik

Esaldiak lotu:

- | | |
|---|----------------------------|
| - Ez da nire laguna etorri, | - azkena baizik |
| - Txikitan ez zitzaidan txokolatea gustatzen, | - nahi izan duelako baizik |
| - Ez zuen bere arazoa konpondu behar, | - goiz baizik |
| - Gaez ez da berandu etortzen, | - zurea baizik |
| - Ez zen lehenengoa heldu, | - Madrilera baizik |
| - Ez da nire ondoan eseri, | - nirea baizik |
| - Ez da behartuta joan, | - fruta baizik |
| - Ez doa Bartzelonara, | - haien ondoan baizik |



MINTZAMENA

1. Ze moraleja ateratzen duzu ipuin honetatik?
2. Gure ametsak lortzeko, edozein gauza egiteko prest egon behar dugu?
3. Zu zer egiteko prest zaude, zure nahiak lortzeko?